

Goierri tarra

354. zenbakia 2009ko urtarrilak 30

Eguzkiñe Iturriotz - Jaione Munarriz

EGURALDI ADITUAK

DR. JOSE
GISASOLA

3998 Elkargokidea

OSTEOPATIAN MEDIKUA



Andramari, 13 Ezk. Solairu-arte / 20200 Beasain / T 629 45 20 53

BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA

Lunbalgia, Hernia Diskala, Ziatika, Migraina, Zefalea, Bertigoa, Artrosia, Buruhezur-aurpegiko mina, ATM

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez Ornaburu Dra.

(Medikuntza estetikoan masterra)


A. Ramirez Baigorri Dra.

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN



- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitia, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

R.P.S.:32/04



Goierriko haurren aldizkaria

12. zenbakia zure esku



Inma Fernandez
Go!azeneko Desiree

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Xabier Urteaga

6. Ingurugiro txokoa: Antinuklearra izateko hamar arrazoi.

8. Euskara txukuntzen: Ze hitz bai... eta ze hitz ez! (IV)

9. Elkarrizketa: Jaione Munarriz eta Eguzkiñe Iturriotz eguraldi adituak.

15. Erreportajea: Aitz-Zorrotz ehiza eta arrantza elkarateak 75 urte.

20. Goierritar berriak: Honoriu Gabriel Dobra errumaniarra.

22. Non zer.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Xabier Urteaga

***Kataluñako
Telebista
Publikoko (TV3)
kazetariak behin
eta berriz
aldarrikatu dute
hauteskunde
kanpaina
irizpide
informatiboari
jarraituz egin
behar dela, ez
ezarritako
denbora eta
ordenari
jarraituz.***

Martxoak 1 ken hamabost

Lehendakaria eta Gasteizko legebiltzarra aukeratzeko hauteskundeak egingo dira martxoaren 1ean. Hautaketa prozesu guztiei aurkitzen zaie berezitasunen bat garrantzitsuak direla esateko. Euskal Autonomia Erkidegoko agintaritzan aldaketa gertatuko ote da? Alderdi guztiek izango ote dute hauteskunde-etara aurkezteko modua? Alderdi berriek izango ote dute ordezkartzarrik legebiltzarrean?.. martxoko hauteskundeetarako gakoetako batzuk izango dira. Egun hori iritsi baino lehen, ordea, hamabost egun lehenago hauteskunde kanpaina hasiko da. Hauteskunde kanpaina jarraitu, alde batera utzi ala sufritu? Zer egingo duzue?

Kazetariok, askok behintzat bai, gure ibilbide profesionalean egin nahi izaten ditugun gauzetako bat hauteskunde kanpaina batean aritzea da. Nik lau jarraitu ditut. Udal hauteskundeak, Espainiako kongresurako hauteskundeak, Europako hauteskundeak eta Legebiltzarrerako hauteskundeak. Eta orain esan dezaket kazetariak izan behar duen eta izan nahi duen hori lortzeko ahaleginean nahikoa lan hutsala dela.

Hedabide guztiek jarraitzen dituzte kanpainak, baina komunikabide publikoek, salbuespenik gabe, ezarritako denbora bat eskaini behar diete aurkeztzen diren alderdiei (administrazio kontseiluek erabakitzen dute). Bakoitzak denbora tarte zehatza izaten du aurreko hauteskundetan lortutako boto kopuruaren arabera. Hori komunikabide publikoei bakarrik ezartzen zaie. Besteetan bakoitzaren irizpide editorialaren arabera modu batera edo bestera antolatzen dute informazioa.

Bateko edo besteko kazetariak, ordea, azken urteotan hauteskundeetako informazioa lantzerakoan antzeko aldakatek bizi izan dituzte, batez ere telebistetakoek. Alderdi politikoei, handiek bereziki, marketing eta komunikazio politikoan aurrera pausoak egin dituzte. Oso ohikoa izaten da ekitaldi politikoetan telebista kamarak ez sartzen uztea. Alder-

diek beraiek ematen dizkiete irudiak kazetariei. Beraiek aukeratutako planoekin eta irudiekin lan egin beste aukerarik ez dago. Are gehiago, geroz eta normalagoa de seinale hori satelite bidez banatzea. Alegia kazetariak hala nahi badu erre-dakzioan ordenagailuaren aurrean eseri eta ekitaldi politikoa handik jarraitu dezake.

Kazetarien elkarteek behin baino gehiagotan salatu dute ekitaldi politikoak marketing hutsa bihurtzen ari direla eta kazetariak bete beharreko lana ezerezean geratzen ari dela. Komunikabide publikoek Alderdi bakoitzari denbora zehatza ematea ere zalantzan jarri dute hainbat profesionalek. Kataluñako Telebista Publikoko (TV3) kazetariak behin eta berriz aldarrikatu dute (azkeneko kanpainan protesta modura beraiek egindako informazioak ez zituzten sinatu) hauteskunde kanpaina irizpide informatiboari jarraituz egin behar dela, ez ezarritako denbora eta ordenari jarraituz. Komunikabide publikoetan hauteskunde kanpainak arautuko dituen legea ere aldarrikatu dute. Oraingoz ez dute ezer lortu. Espainiako Telebista Publikoak (TVE) ere egin zuen ahalegina, baina Hauteskunde Batzordeak politikoei eman zien arrazoia.

Hauteskunde kanpainen beste hainbat gauza ere jarri daitezke auzitan: iraupena, alderdiek gastatzen duten dirua, jenderengan duten eragina...Otsailaren 13an hasiko da hurrengoa, niri oraingoz ez zait tokatzen, baina aitortu beharra daukat gauza onen bat ere atera dudala hamabost eguneko kanpaina horietatik. Beste komunikabideetako kazetariak ezagutu, lagunak egin, politikoak kameran atzean nolakoak diren ikusi eta alderdi politikoen arpegi ezezaguna ezagutu. Bi astetan Euskal Herria aldenik alde zeharkatu eta bestela sekula ezagutuko ez nituen bazterrak bisitatu. Hori bai, beti hauteskunde egunaren atzera kontua egin ez, ken bat, ken bi, ken hiru...hamabostera iritsi arte.



kutxa

San Benito ikastola

KALITATEZKO HEZKUNTZA INTEGRALA

*Zure seme-alabaren hezkuntzan
parte hartu nahi dugu*

- Gertuko jarraipena
- Irakasle talde finkoa
- Giro euskalduna
- Teknologia berrien bultzatzailea

Izen-emate epea:
Otsailaren
2tik 13ra

- Eleanitza
- Guraso eskola
- Garraioa
- Jargela



BATXILERGOA BERTAN

www.sanbenitoikastola.net

Tel. 943880800

Emaila: lazkao@ikastola.net

LAZKAO



SEMPERE KALEA, 7, 1. LOKALA BEASAIN

TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657

e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com



Antinuklearra izateko hamar arrazoi

1. Energia nuklearra oso arriskutsua da

Chernobilgo tragediak argi utzi zuen energia iturri horrek kalteak egiteko eta hondamendiak sortzeko duen ahalmena.

2. Nuklearra da energiari zikinena

Zentral nuklearrek hamarka mila urtetan irauten duten hondakin erradiaktiboak sortzen dituzte eta haien kudeaketa, tratamendua edo ezabapena oraindik konpontzeke dauden arazoak dira.

3. Energia nuklearra da enplegu gutxien sortzen duena

Sortutako energia-unitateko. Edozein energia berriztagarriren azpitik. 2008ko

txostenean Comisiones Obreras-ek argitaratutako datuen arabera.

4. Nuklearra oso energia garestia da

Estatuaren diru-laguntza handia (guztiok ordaintzen duguna...) behar du etengabe aurrera egiteko. Esaterako: Espainian hondakin erradiaktiboen kostua, Hondakin Erradiaktiboen Nazio-ko Enpresaren arabera (EN-RESA), 2070 arte 13.000 milioi eurotik gorakoa izango da.

5. Energia nuklearra ez da beharrezkoa

Alemanian eta Suedian ikusi den bezala, borondate politikoa egonez gero, posible da aldi berean energia nuklearra uztea eta Kiotoko

Protokoloak dioen bezala CO2 igoerpenak murriztea.

6. Energia nuklearra ez da klima aldaketaren konponbidea

Ez da inoiz ekonomikoki bideragarria ez eta eraginkorra izango klima aldaketaren aurka CO2 igoerpenak murrizteko konponbide bezala. Izan ere, energia nuklearra Kiotoko Protokoloaren finantza mekanismoetatik kanpo dago.

7. Energia nuklearrak ez du independentzia energetikorik sortzen

Espainiak zentral nuklearretan erregai bezala erabiltzen den uranioaren %100 inportatzen du, beraz, atzerriko herrialdeen menpe dago zentzu horretan.

8. Energia nuklearra ere bukatu egingo da

Uranio-235-aren (erreaktore nuklearren erregaia) gordekinek hainbat hamarkada besterik ez dute iraungo.

9. Energia nuklearrak ez du gizartearen oniritzia

Iritzien inkestak arabera, espainiar hiritar gehienek energia sortzeko modu hori baztertu egiten dute.

10. Energia nuklearra ez da bateragarria energia eredu iraunkorrarekin

Ez du haren premisa bat ere betetzen: ekonomikoki ez da eraginkorra, ez da gizartearentzako bidezkoa, ezta ingurumenerako onargarria ere.

JAKIN BEHARREKOAK

Inperial Arrano babesteko planak hegaztien heriotza maila gutxitu eta kumeen gehiagotzea ekarri du. Doñanan jarri zen 2006. urtean Berreskuratzeko plana martxan eta hiru urtetan txita kopurua hirukoiztu du. Heriotza maila gutxitu egin da untxiak gehitu dituztelako eta pozoinak desagertzea lortu dutelako.

Ekuadorko konstituzio-ko 71. artikulua: "Natura edo Pachamama, bizia ugaltzen eta ematen dena, bere izate integroa errespetatzeko Eskubidea dauka, bere bizi zikloen, egitura, funtzioak eta garapen prozesuak mantentzeko eta berreskuratzeko." Naturaren Eskubideak konstituzio berrian sartu dituzte, eskubide osoko izate izanik.

Lehorreko nahiz itsasoko ugaztunen laurdenak desagertzeko arriskuan daude Natura Babesteko Nazioarteko Erakundearen arabera (IUCN) azken txostenaren arabera. Populazioak nabarmen gutxitu dira eta zenbait espezieen gainbehera ikaragarria da. Tasmaniako deabruak %60 gainbehera izan du azken hamarkadan. Mehatxuak honako hauek dira: deforestazioa, habitat galera eta ehiza. Populazio gainbehera handienak Asiako hegoekialdean gertatzen ari dira, ugaztunen %79 arriskuan daudelarik.

Energia nuklearra baztertzea borondate politikoaren arabera da, ez baitago arazo teknikorik, energetikorik edo ekonomikorik hori egiteko eta, gainera, segurtasunaren eta ingurumeneko babesaren zein osasunaren aldetik, onena da.

Eman izena Antinuklearra naiz-en: https://colabora2.greenpeace.es/yosoyantinuclear/decalogo_eus.php



Andramendi. Urbialde 2 - Beasain - Tel./Faxa: 943 88 96 17 - Haurtzaindegia: 685 73 36 88 / 665 73 97 50

E-posta: beasain@ikastola.net - www.beasaingoikastola.com



Haurtzaindegia (0-3), ludoteka eta jangela.

Urte guztian zabalik (abuztuan salbu).
Hezkuntza proiektuan txertatutako
proiektua. CAF-eko langileentzat
%20ko beherapena. Eusko Jaurlaritzak
familientzako bideratzen dituen
laguntzetako bitartekari.



Mundua irakurtzen, interpretatzen eta sortzen

erakusteko, euskaltzale eta eleanitz
izango diren ikasleak. Ingelesa 4
urtetik aurrera. Lehen Hezkuntza 4.
mailatik aurrera frantsesa.



Izateko sortu eta sortzeko izan.

Irakurketa-idazketa, matematika
eta oro har edukietan trebatzeaz gain
harremanetan eta sormenean eragiten
duen irakaskuntza. Egoten eta egiten
ikasteko.



Matrikula-kanpainako aurkezpen datak:

Otsailaren 3an
Arratsaldeko 5,30etan, euskaraz.
Arratsaldeko 6,30etan, gazteleraz.
Beste egun batean nahi izanez gero,
aldeztatik aurretik deitu.
Aurkezpen egunean, haurtzaindegi
zerbitzua izango da.

Ze hitz bai... eta ze hitz ez! (IV)

(Euskara batuan)

Maizpide
euskaltegia

Euskara batuan zuzenak izan ez arren, badira zenbait hitz, hainbat arrazoi direla medio, behin eta berrero erabiltzen ditugunak. Zein hitzez ari garen jakin dezazuen, erreparatu eskuineko zutabeari (ezkerrekoan forma zuzena agertzen da):

✓ Zuzen	✗ Oker
O!, a!	Oh!, ah!
Igerilekua	Piszina
Feria	Peria
Frijitu	Prejitu
Budina	Puding-a
Ferratu	Perratu
Errekorra	Record-a
Zunda	Sonda
Non-nahi, nonahi	Nonnahi
Bolbora	Polbora
Tantoa	Tantua
Paraleloa	Paralela
Trastelekua	Trasteroa
Barra-barra	Parra-parra
Erreketea	Reketea
Uhina	Onda
Eskauta	Scout-a
Bakea	Pakea
Aprobetxatu	Probetxatu
Ileordea	Peluka
Erritua	Ritoa
Bekatua	Pekatu
Senataria	Senadorea
Zirimiria	Sirimiria
Osaera	Osakera
Erriflea	Riflea
Zeta	Seda
Tronua	Tronoa
Fardela	Pardela

Txindurria	Txingurria
Bidesaria	Peajea
Sabaia	Sapaia
Ordu arte (ordura arte)	Ordurarte
Bitxia	Pitxia
Noranzkoa	Norantza
Errugbia	Rugby-a
Solidoa	Solidua
Espageti	Spaghetia
Odol-hodia	Odolodia
Tona	Tonelada
Pilota	Pelota
Azpizuna	Solomiloa
Pospoloa	Poxpoloa
Erruleta	Ruleta
Taxilaria	Taxista
Oihal	Oial
Estresa	Stress-a
Esprinta	Sprint-a
Bitsa	Pitsa
Transatlantikoa	Trasatlantikoa
Jaurtigaia	Proiektila
Dorrea	Torrea
Hoditeria	Odieria
Tindatu	Tintatu
Panpina	Panpin
Eskanerra	Scanner-a
Sekula	Sekulan
Sufritu (pairatu, nozitu)	Sofritu
Tristatu	Tristetu
Ogitartekoa	Otartekkoa
Xanpaina	Txanpaina
Seiehun	Seirehun
Xanpua	Txanpua
Ordaintokia	Peajea
Lera	Trineoa
Arrazionalismoa	Razionalismoa

Zer nahi du ileordea tindatu berri duen senatari xarmant horrek?

Hasteko, espagetiak; ondoren, azpizuna bi arrautza frijiturekin; eta postrerako, budina! Edateko "Don Perignon" xanpaina. A, pospoloak ere ekarri purua pizteko!



Lutxi senataria, estresa kentzeko moduko bazkaria eskatzen...

Zuzendu, behar izanez gero...

1. Taxistak seirehun euro kobratu zidan peajera iritsi ginenean.
2. Ordurarte eguzkitan ederki sofritu ondoren, trasatlantikoko piszinara azkar iristeko... sprint-a egin genuen!
3. Sekulan ez dut horrelako txingurrik ikusi gure trasteroan.
4. Erreketeek, kristauak izan arren, bekatu ugari egin zuten nonahi.
5. Leire, panpina horri ilea xanpuarekin ondo garbitu ondoren, ogitartekoa jatera etorri!

OHARRA: lehenengoan, *Taxilariak seiehun euro kobratu zidan ordaintokira iritsi ginenean* behar du; bigarrenetan, *ordura arte, sufritu, transatlantiko, igerileku eta esprinta*; hirugarrenetan, *Sekula ez dut borrelako txingurrik ikusi gure trastelekuan*; laugarrena eta bosgarrena zuzenak dira.



Jaione Munarriz eta Eguzkiñe Iturriotz, eguraldi adituak

Euskalmeten eguraldi iragarpenak egiten lan egiten dute Jaione Munarriz idiazabaldarrak eta Eguzkiñe Iturriotz legorretarrak. Iragarpen ofiziala egin eta zabaltzea da beraien lana. Euskalmeten web orria berritzen dute eta komu-

nikabideei ere eguraldiaren informazioa ematen diete. 40 komunikabideetan egiten dituzte egunero iragarpenak. Eguraldia zer esanik ez dagoenerako hizketagaia baino zerbait gehiago dela kontura gintezke beraiei entzunda.


- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486





Eguraldi gizonak, orain eguraldi emakumeak aipatu beharko al ditugu?

Jaione: Gero eta gehiago gaude. Euskalmeten, iragarpenetan, ere erdiak baino gehiago emakumezkoak gara. Ikerketan gizonezkoak gehiago daude. Iragarpenetik aparte, ikerketa arloa ere badago. Metereologiaren inguruko ikerketak egiten dira, iragarpenak hobetzeko. Gehiena ikusten dena, iragarpenak dira.

Gustatuko al litzaizueke ikerketara bideratzea zuen lana?

Eguzkiñe: Arlo hori oraindik betetzeko daukagu. Egin izan dugu, baina orain arte, oso gauza gutxi. Azkenaldi honetan gainera, komunikazioan nahikoa lan daukagu.

Komunikatzea ere zuen lana da.

Eguzkiñe: Askotan ematen du, komunikazioa gehiago egiten dugula, nahiz eta horretan adituak ez izan.

Jaione: Guk iragarpenetan lan egiten dugu. Gero iragarpen horrekin, web orria berri eta komunikabideetako eguraldi tarteak egiten ditugu. Beti ere iragarpen ofizialean oinarrituta.

Iragarpenak, taldean egiten dituzue, ala banaka?

Eguzkiñe: Batek hartzen

du ardura, baina gero guztien artean komentatzen da. Txandan bi edo hiru pertsona baldin badaude, nahiz eta batek hartu iragarpenaren pisua, besteen artean ere komentatzen da. Batez ere, egoera berezi bat baldin badator. Nahiz eta mapa berdina izan, datuen interpretazioa ere oso garrantzi-

beste puntu batera joan, eta nahiz eta mapak interpretatzen jakin, iragarpena non egiten ari garen jakin beharko genuke.

Euskal Herria anitza da eguraldiari dagokionean ere.

Jaione: Denetik daukagu. Kantauri itsasoa, mendikateak, Nafarroako Bardeak...

Orografia eta Euskal Herria non dagoen kokatutak garrantzitsuak dira.

tsua da. Lekua ezagutzea, leku bakoitzean zein berezitasun dauden ezagutzea, zenbait momentutan elkarrekin komentatzeak garrantzia handia hartzen du.

Modelo ezberdinek ematen dizkizuten iragarpen mapak daude. Azken finean, programa informatiko bat exekutatzen duzu eta berak ematen dizu iragarpeneko datuak. Baina hor ere diferentziak egon daitezke eta horretaz gain, nahiz eta mapa berdina eduki, interpretatzen ere jakin egin behar da. Euskal Herriko orografia eta berezitasun klimatologikoak ezagutzen ditugu. Munduko

klimatologikoki oso anitza da.

Eguzkiñe: Oso kilometro gutxitan, eguraldi ezberdina eduki dezakegu. Ez da berdina egoera zehatz batean Gipuzkoan eta Bizkaian gertatzen ari dena, eta Araban edo Nafarroan gertatu litekeena egun berdinean.

Jaione: Jakin egin behar duzu non zauden kokatuta. Faktore asko sartzen dira eta kasu honetan orografia inportantea da.

Eguzkiñe: Orografia, eta Euskal Herria non dagoen kokatuta ere bai. Erdiko latitudeetan gaude. Kantauri itsasoa eta Ozeano Atlantikoa oso gertu daukagu.

Oso aldakorra da eguraldi gure lurraldean. Ozeano Atlantikotik depresioguneak, fronteak... gauza asko iristen zaizkigu.


Hemen metereologoa izatea zailagoa al da?

Jaione: Madriden zer egin-go duten ez dakit, baina ezberdina dela bai. Katalunian beste parametro batzuei begiratzen diezu. Neguan baldintza batzuk daude. Udan, Mediterraneoko itsasoaren tenperaturak eragina dauka... ezberdinak dira, bakoitzak bere berezitasunak dauzka.

Eguzkiñe: Erdiko latitudeetan egoteak eta aldamenen itsasoa edukitzeak, berezitasun batzuk baditu. Eguraldia aldakorragoa izaten da. Orokorrean, Ipar Hemisferioan, depresio guneen mugimendua mendealdetik ekialderakoa da. Eta gu, paso horren bidean gaude. Oso menpekoak gara. Zailagoa ez da, baina oso eguraldi aldakorra da.

Askotan iragarpen orokorra egitean, Bilbo eta Donostiako eguraldia oinarri hartzen dela dirudi.

Eguzkiñe: Saiatzen gara horrela ez izaten, baina joera hori da. Lanean ari garen gehienok, Bizkaikoak edo Gipuzkoakoak gara. Datuak ere, erkidegokoak bakarrik



dauzkagu. Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko datuak, beste edozeinek dituenak dira, internetetik ateratzen baititugu. Nahiz eta saiatu orokorra ematen, erkidego-ko datuak bakarrik dauzkagu. Eta erkidego barruan ere, Bizkaian eta Gipuzkoan, Araban baino jende gehiago bizi da. Adibidez, Arabako iragarpenak egiten ditugu bertako komunikabideetarako. Araba Errioxako irrati batetik deitzen digute adibidez, eta saiatzen gara haien berezitasunak kontutuan hartuz, iragarpena egiten. Baina irrati orokorretan, oso-oso denbora gutxi daukazu dena azaltzeko. Eta eskualdez eskualde ezin dituzu berezitasunak eman.

Jaione: Telebistan ere badago ohitura bat Kantauri isuri aldera joateko. Joera badago bai goialdera jotzeko eta gero zertzelada bat bota, hegoaldean euri gutxiago egingo duela edo ostarte zabalagoak egongo direla esanez. Baina azkenean, gure boletín ofiziala, erkidegokoa da. Mugatuta gaude, baina web orrian Euskal Herri osora zabal-tzen saiatzen gara.

Iragarpen zehatzak egiten dituzuenean, eskualdez eskualde asko aldatzen al da eguraldia?

Eguzkiñe: Bai, ezberdina izaten da. Zenbat eta zehaztasun gehiago eman nahi, gaizki egiteko aukera gehiago. Azken finean, atmosferaren barruan, datuen barruan, puntutxo bat besterik ez gara. Baina aldaketak egon daitezke. Horregatik da garrantzitsua jakitea, non ari zaren iragarpena egiten eta eskualde bakoitzak zein berezitasun dauzkan.

Goierri ere, oso bereizgarri lokalak ditugu.

Jaione: Goierri, Aralar eta Aizkorri eta Oria ibaia ditu-

kagulako. Goierri, Ordizian (Oiangun), Estanda errekan, Otzaurren eta Zaldibian ditugu estazioak.

Hego haizearekin galdu samar ibiltzen zaretela esaten da.

Eguzkiñe: Egoera batzuetan errazagoa da eguraldia asmatzea beste batzuetan baino. Hegoa dabilenean, normalean, eguraldia eta eguratsa nahastuta egoten dira, orduan, iragarpenaren fidagarritasuna ere jaitsi egiten da.

Jaione: Ipar-mendebalde-

Eguzkiñe: Zehastasunak emateko bai. Kalkuluak egiten dituzu haize boladek zenbateko abiada hartu dezaketenean eta bat-batean, gehiago edo gutxiago ematen du. Askotan, 30 kilometro orduko aldea egon liteke. Alde handia dago.

Itsasorako iragarpenak ere egiten dira.

Eguzkiñe: Aste honetarako (joan zen asterako) adibidez, izugarritzko olatuak espero dira. Orain ari gara ikasten eta Euskalmet sortu zenetik asko ikasi da. Eta denbora gutxian asko aurreratuko du.

Jaione: Itsaso barruan buia berriak jarri ditu Euskalmetek, Matxitxakon eta Donostian, eta horrekin ere, itsasoaren barreneko datuak jasoko ditugu.

Eguzkiñe: Horretan oraindik dezente dago egiteko. Eta itsasotik lortu ditzakegun datuak seguraski, eguraldi iragarpenerako ere baliagarriak izango dira. Arlo horretan egiten diren ikerketak oso ondo etorriko zaizkigu iragarpenetarako.

Jaione: Euskalmet duela 5 urte sortu zen eta nik uste dut lan polita egin dela. Argi dago, asko gelditzen zaigula.

Eguzkiñe: Euskalmet sortu aurretik, Estatuko datuak

Hegoa dabilenean, normalean, eguraldia eta eguratsa nahastuta egoten dira, orduan, iragarpenaren fidagarritasuna ere jaitsi egiten da.

gu. Altsasura edo Tolosa aldera eguraldia aldatu egiten da eta Goierri, herri batetik bestera ere bai. Hego ekialdeko haizea gehiago nabaritzen da Ordizian eta hego mendebaldekoa, Beasainen eta Idiazabalen gehiago.

Eguzkiñe: Euskalmetetik ezin duzu kontrolatu, estazioak ere denean ez dauz-

koarekin errazagoa da hego haizearekin baino. Ipar mendebaldekoarekin, fronte bat mendebaldetik ekialdera pasatzen da, bariazio bat egon liteke, litro gutxiago edo gehiago espero diren. Baina hegoaldekoarekin, egoera nahasiagoa izaten da eta aldatu egiten da.

Gorrito al diezu hego haizeari?



Jaione Munarriz

Ingurugiro Zientziak ikasten hasi zen Salamancan eta Bartzelonan. Fisika munduko, fisika atmosferikoko eta meteorologiako oso irakasle onak eduki zituen eta halako har bat sartu zitzaion. Karrera bukatu zuenean, proiektua egiteko aldaketa klimati-koari buruzko gai bat hartu zuen, Katalunian, l'Es-tartiten dauden Medas ir-len inguruan. Han urtebete pasatu eta oraindik ere har handiagoa sartu zitzaion. Bartzelonara joan eta Me-tereologiako Master bat egin zuen eta handik Eus-kalmetara salto egin zuen. Orain, bere bi zaletasunak, mendia eta meteorologia, uztartuko dituen lan bat egingo ote duen dabil.

erabiliz egiten ziren iragar-penak. Ezberdina da, dago-en iragarpen orokor bat hartu eta hona ekarri eta komunikatzea, edo bertan iragarpena egitea.

Jaione: Orain arlo zientifi-kora gehiago begiratzen da,

baina egia da Euskal He-rrian ohitura handia egon dela beste gauza batzuei begiratzeko. Tenporak dire-la... Bost urteotan, Euskal-metek, beste ikuspuntu bat eman du. Beste gauza bat-zuk begiratu dira. Guk ten-porak-eta ez ditugu kon-tuan hartzea.

Eguzkiñe: Gauza bat da herri ohitura eta bestea irag-arpena egitea, momentuan daukazun datuekin datu objetiboak lortzea. Aurretik zeuden ezagutza lokalak, momentu txikian eguraldiak egin zitzakeen eguraldi al-daketak... oraindik ere era-biltzen dira. Baina orain gertatzen dena da, badaki-zula frentea Galizian dagoe-la. Lehen hodei mota bat-zuk ikusita, konturatzen zi-nen frontea zetorrela. Egu-raldiari lotutako esaera za-har asko dago eta badauka-te beraien oinarria. Baina horiek normalean, epe la-burreko iragarpenak dira.

Orain, Meteosat-ek esa-

ten dizu non dagoen fren-tea eta gerturatzen ari den ala ez. Momentu honetan dauzkagun baliabideekin ez daukagu lainoei begira egon beharrik, nahiz eta hori ere egiten dugun. Dauzkagun baliabideek ere ez dute den-dena ikusten. Gauez zenbait gauza ez di-ra ikusten. Dena hartu be-har da kontuan.

Zein baliabide erabiltzen dituzue?

Eguzkiñe: Momentuko egoera zein den jakiteko, erkidegoan, estazio metere-ologiko automatikoak ditu-gu. 10 minutuero datuak bi-daltzen dizkigute: tempera-tura; euria ari duen ala ez, eta zein kantitateetan; hai-zea norabidea eta intentsita-tea; erradioazioa; erreken kaudala. Horrez gain, Mete-osat eta Kapilduiko (Araba) radarra.

Jaione: Radarrarekin, ikus-ten da, zenbat euri ari duen, zein intentsitate eta zein no-rabide eduki dezakeen pre-

Eguzkiñe Iturriotz

Baserrian bizi izanak, zeri-kusia duelako edo egural-di iragartzea beti gustatu izan zaio Eguzkiñeri. Fisi-ka ikasten Bilbon hasi zen eta Airearen Fisika egitera Bartzelonara joan zen.

zipitazio horrek.

Eguzkiñe: Estazioak, azken batean, hamar minutu lehe-nago zer gertatu den esan-go dizu. Radarrak, Kanta-brian euria ari badu, norabi-dea ikusita, badakizu Biz-kaira sartuko dela. Epe la-burreko iragarpenak egite-ko balio du radarrak. Hu-rrengo eguneko iragarpenik ez digu egingo, baina epe laburrekoa bai.

Epe luzegoko iragarpe-nak egiteko, zer erabil-tzen duzue?

Eguzkiñe: Mapak, progra-mak ematen dizkigun ma-pak. Gehiena ezagutzen den mapa, telebistan azal-tzen den isobaren mapa da. Presio baxuak, altuak, fron-teak non dauden kokatu-ta... baina hori bezain ga-rrantzitsua da, atmosferako goi geruzetan zer ari den

Bi edo hiru egunetako iragarpenak ia %90eko fidagarritasuna du. Hirugarren egunetik aurrera asko jaisten da.

gertatzen. Horiek telebistan ez dira azaltzen, edozeinek ez baititu ulertzen.

Jaione: Guretzat askotan itsas mailakoa baino inportanteagoa da goian zer gertatzen den. Baina, jendearentzat zaila da imajinatzea, hemendik 5.500 metrotara dagoen haize masa hori gorra edo behera doan, eta nola eragingo digun... Egia da baita ere, Euskal Herrian tradizio handia dagoela, jendea asko interesatzen zaio, asko erabiltzen duela, baina orokorrean jendeak euria egin behar duen ala ez eta zein tenperatura egingo duen jakin nahi du.

Eguzkiñe: Azken batean atmosfera lau dimentsiotan daukagu: espazioaren hiru dimentsioak, eta gainera mugitu egiten da. Beraz, denbora ere kontuan hartu behar da. Pixkanaka-pixkanaka komunikabideetan azaltzen da grafismo bidez. Nik uste dut denborarekin erakusten joango dela eta jendea ikasten joango dela.

Baina jendeak eguraldiaz asko daki ezta?

Jaione: Ez dakit asko dakien, baina asko hitz egiten dela bai!

Eguzkiñe: Azken batean, eguraldiaz edozeinek eman dezake bere iritzia, sentitzen duzun gauza bat da. Zer ari den gertatzen dakizunez, badirudi zer gertatuko den ere badakizula. "Jakitun" asko dago bai.

Egun batetik besterako iragarpenak zenbaterainoko fidagarritasun maila dauka?

Eguzkiñe: Bi edo hiru egunetako iragarpenak, ia %90ekoa. Iragarpenak ere aztertu egiten dira zenbate-

raino asmatu diren ala ez. Hirugarren egunetik aurrera asko jaisten da. Hori bada-kigu eta saiatzen gara azpimarratzen joera dela.

Jaione: Telebistan aste guttiko iragarpena egiten denean, ondo azpimarratzen da joera dela, baina grafikoki ikusten baduzu eguzkia lainoekin, horrekin gelditzen zara. Baina horrek ez du esan nahi, asteazkenetik aurrera egoera aldatu daitekeela eta azkenean euria izango dugula.

Eguzkiñe: Fidagarritasuna ez da bakarrik iragarpenarena, baizik eta egoerak ere mugatzen du. Egoera egonkor batean, fidagarritasuna handiagoa da.

Joera esaten dugunean jendeak hori kontuan hartu behar du eta baita ere erkidego osorako iragarpena dela. Eta esaten badugu han-hemenka zaparradak botako dituela, zu zaude lekuan tokatu litekeela dena botatzea. Kritikak askotan hortik etortzen dira. Gauza bat da iragarpena, bestea komunikatzea eta bestea, bakoitzak nola interpretatzen duen.

Jendeak, gustuko eguraldi aurkezleak ditu. Andoni Aizpurua dela, Ana Urrutia dela...

Eguzkiñe: Gure iragarpenetan oinarritzen dira. Batzuk aurkezleak dira. Informazio bat ematen zaie eta beraiek komunikatu egiten dute. Batzuk abila goak dira eta beste batzuk ez dira horren abilak, batzuk interes gehiago daukate, beste batzuek interes gutxiago daukate... Normalean, Euskal Herrian, kanpoan ere bai, eguraldia pertsonalizatu

Komunikabideetako lana

Eguraldi iragarpenak egiteaz gain, komunikatu ere egiten duzue, irratietan eta Jaione zure kasuan, telebistan ere bai. Zer moduz moldatzen zarete.

Eguzkiñe: Ezberdina da eta ez da erraza. Iragarpena egitea baino zailagoa da askotan nahi duzuna ondo komunikatzea. Denbora gutxian esan behar duzu dena, hitz gutxitan, ondo definitu behar duzu egoera, zer egin behar duen... Interesgarria da, ez da nik ikasitakoa, baina ikasten ari gara.

Jaione: Dena berria da guretzat. Guk abantaila batekin jokatzen dugu: badakigula zer esan nahi dugun. Kamera aurrean jartzen naizenean, badakit egoera zein den eta badakit zer esan nahi dudana. Hitzekin edo formarekin asmatzen dudana... ziurrenik kazetari batek hobeto egingo luke. Baina pixkanaka ari gara ikasten eta nerbioak kontrolatzen.

Eguzkiñe: Baita ere kostatzen da, iragarpen ofiziala egiten duzunean, komunikabideetarako hizkeran jartzea, jendeak ulertuko duen hizkuntza erabili behar baituzu.

Hizkerari dagokionean, aurretik bilketa egina zegoen.

Jaione: Euskarazko hitzak, askotan, hitz subjetoak dira. Baina hiztegi zabalagoa daukagu. Erderaz askoz ere teknikoagoa da. Euskarak joko hori ematen du.

Eguzkiñe: Eguraldiari dagokionean, zer egin behar duen adierazteko, sinonimo asko daude. Baina barne lana egiteko hitz asko asmatu behar izan ditugu. Lehen lan hori ez zen egiten. Gertatutakoa edo gertatu behar zena deskribatu egin behar izaten zen. Baina gero, zergatik gertatu den esan behar duzunean... Isobara mapa azaldu behar duzunean... Bigarren Mundu gerran sortutako hiztegia da. Zenbait hitz, gerrarekin lotutako izenak dira, frentea adibidez. Guk ere hitz horiek asmatu egin behar izan ditugu, euskaraz, gauza horiek ez zirelako erabiltzen. Baina beste gauzetarako, deskribaketetarako, oso aberatsa da.

Jaione: Herri bakoitzean gainera aldaera ezberdinak daude. Jende askok lan handia egin du. Pello Zabala, Joxe Landa... bildu eta erabili egin dute, eta mantendu egin da. Adineko jendearekin hitz egiten baduzu, ez dute sekula, ipar-ekialdeko haizea dabilela esango. Frantzi iparra izango da. Oso aberatsa da. Irratietan eta web orrian saiatzen gara hitz ezberdinak sartzen, jendea ohitzen joateko.

Eguzkiñe: Beste leku batzuetan hiztegia edukiko zuten, baina galtzen joan da. Baina hemen, hiztegi hori, mantendu egin da, asko, Pello Zabalar eta esker. Jendeak erabiltzen duen hizkuntza komunikabideetan erabili dute.

egiten dugu.

Eguzkiñe: Iragarpena berdina izan liteke, baina azaltzeko modua ezberdina. Orduan, gertuagokoa egiten zaizuna aukeratuko duzu. Komunikatzeko erak ere zerikusi handia dauka horretan.

Jaione: Itsaso ondoan bizi diren aurkezleek normalean olatuen informazioa gehiago eman dezakete barrual-

dean bizi dezakeena baino. Kostako jendea seguruenik, Anak olatuen zein berri ematen duen zain egongo da. Andonik, beharbada joera izan dezake elurretara jotzeko.

Eguzkiñe: Informazio objektiboa dago batetik, eta bestetik, informazio hori komunikatzea.

Jaione: Eguraldia objetiboki ematea, izango zen, gure

buletin ofizial bat hartu eta irakurtzea. Baina hori ez du inork ulertuko.

Eguzkiñe: Saiatzen gara ahalik eta objetiboena azaltzen baina pertsonak gara eta ezinezkoa da erabat objektibo izatea. Tonuak bakarrik ere, gauza bat modu batera edo bestera esan, alde dago.

Jaione: Eta jendea deneko dago. Batzuek eguzkia-ekin gozatzen dute eta beste batzuek euriarekin.

Gaur egun eguraldiaren menpekotasun gutxiago dugu, baina hala ere, garrantzi handia ematen zaio iragarpenari.

Jaione: Niri behintzat asko eragiten dit eguraldiak. Beraz, sentitzeko eran, egin ditzakezun gauzak baldintzatzen dizkizu.

Eguzkiñe: Exijentzia maila aldatu da. Lehen garrantzitsuagoa zen eguraldia, baina azken finean, ezin zen hainbeste zehaztu, baliabiderik ez zegoelako. Iragarpenak hobetu diren heinean, gehiago eskatzen zaigu. Zein arropa jantzi behar dugun esatea ere eskatzen zaigu.

Iragarpen batzuetan, ordua ere zehazten da ezta?

Jaione: Badaude komunikatzaile batzuk joera hori dutenak, baina aldi berean kritikatuagoak dira meteorologiaren barruan. Arratsaldean zehar esatea nahikoa da.

Eguzkiñe: Eta nik uste dut hori hobetuko dela. Baina oraindik ere ordua esatea... Hiru-sei orduren barruan fenomeno bat gertatzen baldin bada, guk asmatu dugu-la esaten dugu.

Wimbeldon tenis txapelketan minuturaino zehazten dute euriaren etorrera.

Eguzkiñe: Han seguraski izango dute epe motzeko iragarpena egiteko ahalmena. Nik uste dut hori hobetuko den zer bait dela. Han pertsona bat edukiko dute horretarako eta izugarritzko



Eguraldia eta aldaketa klimatikoa

Azken aldian asko hitz egiten da aldaketa klimatikoaz. Baina, meteorologiek garbi utzi nahi izan dute gauza bat dela aldaketa klimatikoaren inguruan mundu guztian egiten ari diren ikerketak eta bestea jendeak egiten dituen komentarioak. "Memoria oso laburra daukagu. 'Horrelakorik hemen ez da gertatu!' esaten da, eta datu objektiboak begiratzan badituzu, ikusten duzu horrelakoak gertatu direla. Eguraldia aldatzen da urte batetik bestera baina gauza batzuk eguraldiaren aldaketa normalak dira. Eguraldia ez da gauza bat finkoa. Udazken guztiak ez dira berdinak, udaberriak ere ez...". dio Eguzkiñek.

Jaioneren ustez aldaketa klimatikoa oso gaizki erabiltzen den hitz bat da. "Berez, bi urtean, udazkenean euri gehiago ala gutxiago egin duelako... hori ez da aldaketa klimatikoa. Dauden parametroak hautsi eta beste tendentzia bat hartzen duenean da

aldaketa klimatikoa. Glaziazio batetik garai epelago batera pasatzea, hori aldaketa klimatikoa da".

Argi dago planeta, orokorrean, epelduz doala. Baina horrek gero zein eragin izango duen ez dago batere argi. "Bi milatik gora zientzielari daude horren inguruan ikerketak egiten. Oso iragarpen katastrofistak daude, beste batzuk ez dira hainbeste. Beroketa bat ematen ari dela, datuen bidez demostratu da, tenperatura igotzeko joera bat badagoela. Baina horrek nola eragingo duen Euskal Herriko eguraldian, hori ikerketa arloa da", azaldu du Eguzkiñek.

Jendeak duen nahasateaz adibide bat jarri du Jaionek: "lehengoan batek, irrati batera deitu zuen Euskalmetekoei galdeitzeko, ea negua gogorra baldin bazen, uda oso beroa izango ote zen. Ez dago patroï bat hori horrela izango dela esaten duenik".

baliabideak izango dituzte kontrolatzeko. Hemen radar bat baldin badaukagu erki-degorako, han hiru radar izango dituzte horretarako, kalkulu automatikoak egingez...

Jaione: Euskal Herrian interesgarria da galernaren gaiarekin, epe motzean zehazten joatea.

Eguzkiñe: Radarra jarri ge-

nuenetik asko hobetu da, gehiago zehaztu dezakezu. Sos deiakoei eta informazioa emateko erabiltzen da. Radarrak gauza batzuk oso ondo ikusten ditu baina beste batzuk ez, nahiko al-tueran dago eta. Itsas inguruan beste radar bat behar-ko genuke. Baliabideak handitzen joaten garen heinean, epe laburreko gauza

horietan asko hobetuko da. Gertatzen dena da, informazio hori zaila dela komunikabideetan erabiltzea, oso-oso epe laburreko gauzak izango baitira. Izugarritzko erauntsia baldin badator txingorreakin, deitu eta esan egingo da, gutxi gorabehera zein garaietan iritsi-ko den esanez.



Aitz-Zorrotz ehiza eta arrantza elkarteak 75 urte bete ditu

*Jon Ordoñez beasaindarrak
liburua aurkeztuko du bihar*

Elkarte gastronomiko soila baino askoz ere gehiago Beasaingo Aitz-Zorrotz, Ehiza eta Arrantza Elkartea. Horixe erakutsiko du Jon Ordoñez kazetari beasaindarrak, egunotan argitaratuko duen liburuan. Kirol elkarte honek egiten

duen lana, bere historia eta hainbat parte kontatzen ditu bertan. Ingurumenaren arloan egindako lanari atal berezia eskaini dio liburuan, baita emakumezkoen parte-hartzeari buruzkoa ere. Urtarrilaren 31n bazkideei aurkeztuko die liburua.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI Jose Ramon Dato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

biok kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala

zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Goierri, 12

Autowag



☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

2008. urtean, 75. urteurrena bete zuen Beasaingo Aitzo-Zorrotz elkarteak. Dena den, atzerapentxo txiki batekin bada ere, elkartearen historia biltzen duen liburua egunotan kaleratuko du Jon Ordoñez beasaindarrek.

Sorrerako urteari dagokionean hala ere, ez du datu zehatzik atera, dokumentatu asko eta asko, galduta baitaude. “Dokumentuetan, elkarte hau 1933an sortu zela jartzen du. Baina sorrerako agiriak desagertuta daude. Nahasketa txiki bat badago. 1933an Espainiako federazioan sartu zen elkarteak. Baina berez Aitz-Zorrotz 1935ean sortu zen, ehiza eta arrantza elkarteak. Baina aurretik bazen elkarte bat, Cazadores de Beasain izenekoa, ehiztariak ziren”, azpimarratu du Jon Ordoñezek.

Cazadores de Beasain elkarteak, “kanpotarrak Goierriin ehizerako terrenok akotatzeko hasi zirenean sortu zen, 1928an. Batez ere Tolosatik etortzen ziren ehi- zera, eta beasaindarrek aukerarik gabe gelditzen ziren”. Beraz, elkarteak sortu eta Beasaingo eta Astigarretako lurjabe eta baserritar guztiei, lursailak akotatzeko baimena eskatu zieten. Halaxe lortu zuten. Elkartek kudeatzen zuen gai hori”, zehaztu du beasaindarrek.

Aitz-Zorrotz

Tolosarrekin tirabira bat baino gehiago izan zuten ehiztari beasaindarrek. “Beasaindarrek Etxegaraten Naizpe mendian aritzen ziren usotan. Baina urte batean, tolosarrek akotatu egin zuten eta beasaindarrek ezin ziren sartu. Baina beasaindarrek ez ziren atzean gelditu: Naizperen azpian, Aitz-Zorrotz izeneko sail bat badago eta hara joaten ziren beasaindarrek eta tiroka hasten ziren usoak izutzen. Azkenean, lau zapabost postu eman zizkien beasaindarrei eta hala bakean utzi zituz-



1935ean, 43 bazkide ziren. Gerra ondorenean, 70. Gaur egun, 130 bazkide eta 30 bat jubilatut. Bazkide gehienak ehiztariak eta arrantzaleak badira ere, zaletasun bakarra dutenak ere badira. Argazkia 80. hamarkadako danborradakoa da.

ten tolosarrek. Beasaindarrek jarraitu egin zuten inguru hori akotatzeko 1953ra arte. Hortik hartu zuen elkarteak izena”.

Datuak datu, 1935. urteko martxoa. sortu zen Aitz-Zorrotz elkarteak. Aurreko elkartearen ehiztariak bakarrik ziren bazkide, baina Aitz-Zorrotzen, ehiztariak eta arrantzaleak. “Garai hartako aldirikarrietan agertzen da ehiztariak eta arrantzaleak ez zirela ondo konpontzen”, zehaztu du Ordoñezek.

Sorreraren urtean zehaztasunik ez badago ere, beasaindarrentzat ez dauka halako garrantziarik. “80. urteurrena izan, 75. izan... niretzat guzti hori ez da garrantzitsua. 75. urteurrena

bezala, 80.a ere izan liteke, Cazadores de Beasainen zegoen jendea, Ehiza eta Arrantzakora pasatu baitzen. Felipe Bueno izan zen lehenengo presidentea eta Jose Sarasola lehenengo idazkaria. Azalean azaltzen dena, Jose Sarasola da”.

1936. urtean gerra hasi zenean, bertan behera gelditu zen elkarteak. “1946ko urriaren berriz ere martxan jarri zuten. Kontu liburuan, 1936ko ekaina eta hurrengo orriaren, 1946ko urria azaltzen da”.

Kirol elkarteak

Elkartearen historian, 1960. urtean urte garrantzitsua izan zen. 1960. urtearen aurretik, Bar Agirren biltzen ziren Beasaingo ehiztariak

eta arrantzaleak. Dena den, 1960. urtean Oriamendi kaleko egoitza erosi eta elkarte gastronomikoa ireki zuten. “Beste elkarte batzuk ere bazeuden Beasainen eta beraientzako lokal bat egokia ikusten zuten. Oriamendi kalea 1957an egin zuten. Lokala erosteko aukera sortu zen. Aurrerago, beste zati bat ere erosi zen. Zure interes bera daukan pertsonekin elkartzeko lekua zen, kontsumitu beharrik gabe”.

Herrian, Elkarte gastronomikoa ezagunagoa bada ere, “elkarte hau berez, kirol elkarteak da. Bere kirol jarduerak, hemendik kanpokoak da. Arrantza taldea dauka, Ehiza xeheko txapelketan parte hartzen dute, ibaietan analisiak egiten dituzte, urtegiak kudeatzen dituzte... baina lan hori ez da ikusten; herrian elkarte gastronomikoa ikusten da, danborradan ateratzen dena. Elkarte gastronomikoa baino askoz ere gehiago da. Izugarritzko lana egiten ari da zaletasun horien alde eta

**Kirol jarduerari utzi gabe,
1960. urtean elkarte gastronomikoa
ireki zuten Oriamendi kalean.**

baita ingurumenaren alde ere. Ingurumenak atal banandua dauka liburuan”, zehaztu du Ordoñezek.

Arrantza

Elkarteko zaharrenak elkarriketatu ditu Jon Ordoñez kazetariak eta hasierako urte haietako pasarte bat kontatu digu: “Arriaran inguruan eta karramarroak hartzen ari omen ziren garaiz kanpo. Gizon bat joan omen zitzaien, karramarroak jatera gonbidatu zuten. Presidentea zen. Elkartera gonbidatu zituzten. Egiten ari zirena legez kanpo egiten ari zirela, harrapatzen bazituzten isuna izango zutela, elkarte kide izanda abantaila hauek izango dituzue, zein garaitan zer egin daitekeen azalduko dizuet...”.

Ingurumenaren aldeko defentsa, elkartearen betiko filosofia izan da. Ondoko koadroan dituzue hainbat adibide.

Gaur egun ere, heriotzarik gabeko arrantza bultzatzen dute. Haurrei ematen dizkieten ikastaroetan horixe erakusten diete.

Puntako arrantzaleak dituzte Aitz-Zorrotz elkarteak. Arrantza taldea du, txapelketa ezberdinetan, aurreaurrean ibiltzen den taldea: Unai Urkia idiazabalarrak, Olain Irizar eta Luis Muriel lazkaotarrek eta Iñigo Lopez de Munain beasaindarrak osatzen dute taldea, Juan Jose Sanzen eta Joxe Mari Telleriaren gidaritzapean. “Garai batean, Juan Jose Sanzek Espainiako txapelketa irabazi zuen eta munduko txapelketetan aritu zen. Taldeak, Gipuzkoako txapelketak irabazi dituzte, EAEkoak, Espainiako txapelketa taldeak ere irabazi dute...”, nabarmendu du Ordoñezek.

Maila apalagoan, umeentzako, bazkideentzako eta jubilatuentzako txapelketak antolatzen dituzte. Arrantza garaian azkenik,



Elkartearen basierako arautegian lehen puntaun ageri da ingurumena zaintzearen beharra.

REGLAMENTO

de la Sociedad de Caza y Pesca de Beasain

CAPITULO I

Artículo 1.º—Esta entidad según su título lo indica, tiene por base primordial la defensa de los intereses deportivos de la caza y pesca, fomentando y defendiendo por todos los medios disponibles, tales como repoblando nuestros montes y ríos de especies para la procreación, y hacer respetar la veda castigando severamente a los infractores de la vigente ley de caza y pesca.

Artículo 2.º—Para conseguir el repoblamiento de nuestros montes, ríos o regatas, solicitará ayuda material a las entidades oficiales de nuestra provincia, con objeto de adquirir los elementos necesarios para la repoblación haciendo de los mismos el uso mas conveniente y acertado para los intereses generales de la buena marcha de la Sociedad.

Artículo 3.º—Correspondiendo a las finalidades de nues-

3

Ingurumenaren alde

Aitz-Zorrotz elkartearen historia arakatu eta idatzi duen Jon Ordoñez kazetaria, harrituta gelditu da elkarteak ingurumenaren alde egin duen lanarekin eta duen sentsibilitatearekin. “Harritu egin nau egiten duen lanak. Sentsibilite handia dago. Lehenengo estatutuetan ere garbi azaltzen da, elkartearen helburuak, besteak beste, birpopulaketak egitea eta erreketako isuriaren aurka aritzea dela. Kontuan hartu behar da, 1935. urtean, industria puri-purian zegoela eta orduan hasi ziren erreketako isuriak. Oria ibaia amuarrainak tri-paz gora azaltzen hasi ziren. Zegaman, kamioien batek buelta hartzen baldin baduzuen, karga galdu eta erreketara erortzen zen, Oriara sartu... Zerbait jakin bezain pronto, erreketara joan, analisiak egin eta salaketak sartzen zituzten. Bazkide batek esan dit, ez zela bromatako kontua. Garai hartan ibili zaitez enpresa bati salaketa jartzen, egurra jasotzeko arriskua zegoen. Langile jendeak osatzen zuen elkarteak”.

Amuarraina galtzear

Erreketako birpopulaketaren alde lan handia egin da, batez ere, amuarrainekin, Agauntza eta Estanda erreketan. “Joxe Mari Telleriak 20 urte daramazki lan horretan. Arrantza Federazioan elkartearen ordezkaria da. Frantziatik ekarri izan dira arrautzak. Zuloak zituzten kaja txiki batzuetan arrautzak sartu eta erreketara bazterretan jartzen ziren. Zaintzera joaten ziren eta konturatzen ziren zuloetatik ateratzen zirela kumeak. 50 urte daramazkiete arrautzak jarritz, eta oraindik ere bai”, zehaztu du beasaindarrak.

Gero eta amuarrain gutxiago dagoela eta, “Goierrin, Amuarrainaren egin dituela esaten du Joxe Mari Telleriak. Urte askoan aritu dira Frantziatik amuarrain arrautzak ekarritz, baina kanpoko amuarraina ez omen da ona umeak ateratzeko. Bertakoa behar omen du baina bertakoa oso sentikorra omen da. Edozein aldaketarekin galdu egiten da. Kanpokoak bertakoa irabazteko lekuak kendu dio, baztertu, eta umeak ez ditu ateratu. Arazo handia dago. Telleriak esaten du, Agauntza erreketan, azken urteotan ez dutela arrautzarik jarri. Beste arazo bat ere ikusten du Telleriak: erreketara handiak berreskuratzen ari dira, Oria adibidez, baina orain arte oso garbi egon diren erreketak kutsatzen ari direla. Industrialdeak zabaltzen ari dira eta erreketak kalte dakar”.

Amuarraina historia bilakatzeko zorian egon daiteke, beste espezie batzuekin gertatu izan den bezala. “Orain dela 80 urte, Oriak eta Agauntza erreketak bat egiten duen lekuan, ur txakurrak harrapatzen zituzten. Desagertu dira. Karramarroen adibidea ere badago. Eta amuarraina ere bide berdinetik doa. Desagertu egingo da”, gaineratu du beasaindarrak.

Lareoko eta Arriarango urtegiak arrantza kudeatzen du. Paseak banatzen dituzte elkartean. "Zaintza lan bat ere badago: arrantza denboraldi hasieran eta batez ere bukaeran, ingurua garbitzera joaten dira. Edozein egunetan, denak legearen barruan arrantzan ari ote diren ikustera ere joaten dira".

Ehiza

Ehizean ere izaten dituzte txapelketak: "ehiza xehea txapelketa antolatzen dute. Aitz-Zorrotetik lau sailkatuko dira eta herri arteko txapelketarako. Goierriko txapelketa irabazten duena Gipuzkoako txapelketara joaten da. Gero EAEkoa, Espainiakoa...".

Basurde eta azeri ehizean asko ibilitakoak dira beasaindarrak. "Gaur egun basurde asko dago. Azeri ehizak ere antolatu izan dira, Idiazabal eta Lazkaokoekin batera. Azkenean azeria zelako, faisanak, oilagorrak... harrapatzen zituena. Base-ritarrentzat kaltegarria izateaz gain, ingurumenarentzat ere hala hartzen zen. Usurbe mendian adibidez, Murumendi aldean, orain dela urte asko ez dela, 2.000 faisana askatu zituzten. Gutxi batzuk bakarrik gelditu ziren bizirik, gainerakoak azeriek jan zituzten. Zepoak jarri zituzten eta egun batean 14 azeri harrapatu zituzten. Josetxo Zufiaurrek isto-



Arrantza egitera irteera 1970eko hamarkadan.

rio bat kontatu zidan: Beasainen, Felix Zeberio ataundarrak denda bat omen zeukan. Ehiz kartutxoak saltzen omen zituen eta Lizarrustin antolatzen zituen batidak. Beasaingo eta Ataungo ehiztariak elkarrekin aritzen ziren".

Plater tiraketa eta usakume tiraketa ugari antolatutakoa da Aitz-Zorrotz. "Plater tiraketak eta usakume tiraketak antolatzen ziren inguruko herrietan. Platerak egiteko makina erosi zuten beasaindarrek eta platerak saltzen zituzten", zehaztu du.

Irteerak

Urte askotan, ehizeko eta arrantzako irteerak antolatzen zituen elkartek. "Garai hartan kotxerik ez bai-

tzen. Arrakasta handia zuten irteerek. Ehizera Araba, Nafarroa eta Burgos aldera joaten ziren. Arrantzara, Arabako urtegira, Isabara, Irunberri aldera.... Bazkide batek kontatzen du, movilette batean Izabarraino eta Lizarraraino joaten zen zela bizkarrean kainabera hartuta, goizeko hiruak aldean aterata".

Hala ere, ehizeko baimenen sistema aldaketak eragin zuen irteera hauek bertan behera uztea. "Garai batean, lizentzia, Gipuzkoakoa eta Espainiakoa zen. Denek bi lizentziak edukitzen zituzten. Irteera bat antolatzea erraza zen. Baina Erkidegoek hartu zutenean gestioa, Gipuzkoakoa eta eskualdekoa dago. Ez dago

Espainiako orokorra. Batek Nafarroakoa edukiko du, besteak Burgoskoa... beraz bidaiak bukatu egin ziren, denentzako ezin baitzen antolatu", argitu du jonek.

Garaiak asko aldatu dira, eta garai batean, merkeagoa ere ba omen zen ehiza. "Kartutxoak beraiek egiten zituzten. Polbora, takonak eta perdigoiak erosi eta bakoitzak bereak egiten zituen. Trukatu egiten zituzten besteak nolako kartutxoak egiten zituzten ikusteko".

Garaiak aldatu direnaren beste adibide bat kontatu digu Jon Ordoñezek: "Lazkaon izaten zen goizeko ordu bietako mezetara joaten ziren. Eguna argitze-rako, prest izaten ziren".

SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

SOLOZABAL
AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aiña Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76

A SE PLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

txekin
www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Emakumearen historia elkartean

Emakumezkoek urte askotan, (leku batzuetan oraindik ere bai) debekatuta izan dute elkarte gastronomikoetako bazkide izatea. Aitz-Zorrotz elkarte ez da salbuespena izan, Jon Ordoñezek ikertu duenez. “Herentzia eskubidean oinarritua, 1996. urtean, ez zegoen arazorik, alaba edo emaztea bazkide izateko. Baina emakumea ezin zen ezin zen bazkide berri egin. Iaz, estatutuak aldatu ziren eta orain eskubide osoa dute. Oraindik inor ez dago. Itxaron zerrenda dago, kronologikoa da”, zehaztu du Ordoñezek.

Baina bazkide izateaz gain, elkartean sartzea ere debekatuta izan dute urte askoan emakumezkoek. “Garai hartan pentsaezina zen beraientzako emakumeak elkartean sartzea. Giroa beste bat zen, eta pertsonak ere beste bat. Hauek 60. urtean 40 bat urte izango zituzten. Gizonezkoentzako eremu bat zen elkarte, salbu zeuden. Emakumezkoek, jaiegunetan bazeukaten baimena, baina ordutegi zehatz batean. San Martin egunean ere bai eta urteko beste egun seinaleturen batean. Urte Zahar gauetan adibidez, dantzaldiak egiten ziren eta emakumezkoak etortzen ziren. Baina gainontzean, oso egun zehatzak ziren. Hortik kanpo, konserjearen emaztea bakarrik sartzen zen. Konserjea bazkide bat zen eta garbitzeaz eta falta ziren gauzak erosi eta jartzeaz arduratzen zen. Emazteak lagundu egiten zion. Konserjeak soldata izaten zuen eta emazteak, egiten zuen lanaren arabera, sari bat ematen zitzaion”.

Elkartean belaunaldi berriak sartzen joan ziren heinean, gauzak aldatzen hasi ziren. “70.eko hamarkada bukaeran izango zen aldaketa. Kontua da, jende gaztea sartu zela garai hartan. Atean ba omen zegoen kartel bat, “prohibido la entrada a mujeres”. Nire aitaren koadrilakoak sartu zirenean, jende gaztea zuzendaritzan sartu zirenean, lehengo gauza, kartel hori kentzea izan zen. Oraindik ez zegoen erabakita emakumeak sartzea. Jende gaztea sartu zenean, neskalagunekin-eta etorri nahi izaten zuten. Jende gaztea eta zaharren arteko zatiketa zegoen. Zaharrenek, emakumezkoak ikusi ere ez zituzten egin nahi. Beraientzat, gizonezkoentzako eremu bat zen. Bazkide batek esaten zidan, orduan emakumezkoak oso kontakatiluak zirela eta bat enteratzen bazen besteak enteratzen zirela... Adibidez, garai hartan etxeetan gosea pasatzen zen. Hona etorri eta txuleta jaten zuten eta emakumeren batek ikusiz gero... etxean gosea pasatzen eta elkartean txuleta jaten



esango zutela...”.

1970eko hamarkada bukaeran, atean zegoen kartela kendu zuten, “jendea sartzen hasi zen, gazteak gaizki begiratzen zituzten... batzarretan gaia ateratzen zen eta halako batean kendu egin zuten. Nikolas Yabar izan omen zen proposatu zuena. Elkarrekin akabatuko zutela esaten zieten zaharrenek. Bazkide batzuk utzi egiten zuten elkarte eta horien ordeaz, jende gazte berria sartu zen”, gaineratu du beasaindarrak.

Haurrak

Umeekin ere sortzen ziren arazoak. “Garai batean umeek ezin zuten sartu. Lokala erosi eta gutxira, telebista jarri zuten. Etxeetan ez zegoen telebistarik eta umeak hona etortzen ziren telebista ikustera. Neurri bereziak hartu ziren umeentzat: igande arratsaldeetan, bi banku umeentzat eta gainerako aulki guztiak bazkideentzat”, azpimarratu du beasaindarrak.


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnaola 8
Tel 943 721 078
Zumarraga

Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kallu
Tel 943 711 804
Arrasate

O



Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian
zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA



Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA



*Honoriu Gabriel Dobra
errumaniarra Beasainen bizi da*

Idiazabalgo atezainen entrenatzailea

Honoriu Gabriel Dobra. 40 urte. Errumaniarra. Duela bi urtetik Beasainen bizi eta lan egiten du. Bere zaletasunari ere eusten dio: Idiazabalgo futbol taldeko atezainen entrenatzailea da.

Salbatoreko enpresa batean lan egiten du Honoriu Gabriel Dobrak. Baina aste-astan bitan, badu bete beharreko beste konpromiso bat: Idiazabalgo futbol taldeko atezainak entrenatzea. Aurtengo denboraldiaren hasieran hasi zen eginkizun horretan. Willy Monreal futbol entrenatzailearen bidez iritsi da Idiazabal futbol taldera. Honoriu gustura dabil, dena den, hori, besteek erantzun beharreko galdera dela esan digu. “Baina gustatzen zaidan lana da. Askoko gustatzen zait futbola”, aitortu du Honoriuk.

Andreea Oros emaztea alboan izan dugu itzulpen

lana egiten eta Andreeak esan digunez, “urtebetetze egunean aldageletan, pankartak zizkieten, ikurriña eta Errumaniako bandera, zorionak euskaraz eta errumaniez... ezusteko oso polita izan zen”.

Emaztea ere pozik dago, gustatzen zaiona egiten baitu eta horretaz gain, integratzeko ere balio duelako. “Errumaniarrekin lan egiten du eta beti errumaniarrekin dabil eta kosta egiten zaio gaztelera ikastea. Honela, bertako jendea ezagutu, bertako ohiturak ulertu...

Bizitzen saiatu”, dio errumaniarrak.

Esperientzia handia

Esperientzia handia dauka Honoriuk futboleant. 20 urte baino gehiago atezain postuan jokatu du Errumanian. Hemengo Preferente mailan jokatu izan du Honoriuk. “Zorterik ez dut izan, baina asko gustatzen zitzaidan eta nik uste dut gehiago egin nezakeela”, azpimarratu du errumaniarrak.

Entrenatzaile lanean ere badu eskarmenturik. “Atezainak entrenatzen ere urte

askoan aritu naiz, hemengo Preferente mailan. Denboraldi batean, talde osoa entrenatu nuen ez atezainak bakarrik. Bi urtean, hemengo Hirugarren mailako taldea entrenatu nuen. Baina batez ere Preferentean aritu izan naiz”, adierazi digu.

Zein entrenamendu mota egiten dituzten galdetu diogu: “mugikortasuna, abiadura, penaltiak... landuz ditugu. Hizkuntza muga da baina hitzez adierazteko gauza ez naizenean, praktikaren bidez erakusten diet. Baina gero eta hobeto moldatzen ari naiz. Momentuz gustura nago egiten ari naizenarekin. Oso jende jatorria dago Idiazabalen”.

Idiazabalgo San Blas jaietan bete-betean gauden honetan, eta atezainei gomendio berezirik eman ote dien jakin nahi izan dugu. “Bizitza beraiena da, eta beraiek ikusiko dute zer egiten duten. Baina ez badira

20 urtean atezaina izan zen
Errumaniako Preferente mailan.

Bere umetako idoloa,
Luis Arkonada izan zen.

zaintzen ondorioak izaten dira. Amets handi bat baldin badaukazu, borrokatu egin behar duzu. Sakrifika-tu egin behar da. Ni beti as-ko zaindu izan naiz”, azpi-marratu du Honoriuk.

Badu amets bat Hono-riu Gabriel Dobrak: futbo-letik bizitzea. Tituluren bat atera nahi du horretarako. Hori bai, Bigarren B maila baino gorago ez du bere burua ikusten. “Hankak lu-rrean ditut. Baina zoriontsu izango nintzateke nik en-trenatutako atezainen bat gora iritsiko balitz. Nik nire aletxoa jarriko dut behin-tzat”, aitortu du goierritar berriak.

Futbola gertutik jarrai-tzen du. Telebista bidez, in-ternet bidez... egunean da-go futbolaren kontuetan.

Barça taldea aipatuta lordea erortzen zaio. Asko gozatzen du, asko gusta-tzen zaio. Guardiola oso entrenatzaile ona iruditzen zaio. “Jokalaria ere oso ona izan zen”, adierazi digu.

Atezainetan ere baditu gustukoak direnak: batez ere, Bufon italiarra, baina Iker Casillas ere gustukoa du.

Euskal Herrian atezain onak izan ditugula aipatze-arekin batera, berehala erantzun du Honoriuk: “ni-re umetako lehenengo ido-loa, Arkonada izan zen; ni-re Jainkoa zen”. Orain, be-re umetako idoloaren he-rrialdean bizi da.

“Kosta egiten da bertako ohituretara moldatzea”


Honoriu Gabriel Dobra Beasainen bizi da 2007ko otsailaren 14tik. Maiatzean etorri zen Andreea Oros emaztea, alaba-ekin. Gustura daude Beasainen. Alabak ederki ikasi du euskaraz. Bertako bizi-modura eta ohituretara jartzen kostatzen ari zaie. “Gogorra da. Ohitzea kosta egi-ten da, ezin da bi egunean ohitu. Azken batean bi mundu oso ezberdinak dira. Azkenean gauza txikiak dira, baina ez-berdina da dena. Alabak euskaraz hitz egiten du. Berehala ikasi zuen euskaraz”. Andreeak ikasi nahi du euskara, baina denbora falta zaio. Nahi izanez gero, saiatuta, ikasteko ez du arazorik ikusten. “Baina jarri egin behar, denbora behar. Oso leku polita da hau baina norberaren herriak deitu egiten du askotan”, adiera-zi du Andreea Orosek. Hori bai, “Oso pertsona onak aurkitu ditugu, inorekin ez dugu arazorik izan. Denak, laguntze-ko prest”, gaineratu du errumaniarrak.

Dena den, Honoriuk, gehiena gusta-tzen zaiona egiteko aukera aurkitu du Goierrin: futbolaren munduan lan egite-ko aukera.

Sukaldaria da Andreea. Errumaniako eta Euskal Herriko sukaldaritza oso ez-berdinak badira ere, Andreeak ez dauka inongo eragozpenik, errezeta bat hartu eta prestatzeko. “Adibidez, Errumani- patata-tortilla egiten dugu baina beste era batera. Guk oso arrain gutxi jaten du- gu. Ganbak, gulak, langostinoak... gu ez gaude arraina jaten ohituta”, azpimarratu du.

Bizimodu hobeago baten bila

Transilvania inguruko lurraldekoak dira. “Hungariako mugatik 7 kilometrora bizi



Honoriu Gabriel Dobra eta Andreea Oros beasaindar berriak.

ginen”, zehaztu du Honoriuk. Goierrin errumaniar asko daude baina ez dute ha- rremanik beraien artean. “Ezagutu ere ez gara egiten”, gaineratu dute.

Gehienak bezala, bizimodu hobeago baten bila etorri dira Euskal Herri- ra. “Errumania gaizki dago. Etxebizitza, au- toa, taberna bat geneukan baina oso zai- la da. Lan asko egin eta 300 euro baino gutxiago irabazteko. Hiru milioi erruma- niarrek alde egin dugu eta agintariak itzultzeko eskatzen ari dira. Beti saiatzen dira, baina beti beraien onerako begira- tzen dute, ez herriarentzat”, nabarmendu du Andreeak.

Etorkizunean beraien burua Erruma- nian ala Euskal Herrian ikusten duten galdetu diegu: “denborak esango du”, erantzun digute.


euler
bombas sumergibles


Salmenta
Konponketa
Alokairua
Harilketa



T/F: 943 16 47 93 - M: 639 40 26 11


**GRAFICAS
EGUZKI**
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
Tel 943 88 94 82
Faxa 943 88 60 44
BEASAIN



**KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK**
☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Beasain

San Martin eguna

Otsailak 3, asteartea:

17:30ean: Ipuin kontaketa: "Karabi karaba". Udal Bibliotekan.

Otsailak 4, asteazkena:

17:30ean: Santa Agedako eskea. Herriko kaleetan zehar.

Otsailak 5, San Martin eguna:

9:30ean: Udal Txistulari bandaren eta musika eskolako bandaren goiz eresia.

9:30ean: Kofradien harrera eta bilkura Ongietorria aho-gozagarriekin.

10:30ean: XXIV. Odolki kofradiaren biltzarra. Kofradien ibilaldia galako jantzita, txistulari dantzari eta poxpolinek lagunduta. San Martinen estatuara iritsi eta lore eskaintza egingo diote. Ondoren ohorezko aurrekua dantzatuko da.

11:00etan: Meza Nagusia. Andre Mari Zeruratuaren Parroki Elizan.

12:00etan: Kofradiaren XXIV. Kapitularen Ospakizuna eta Ohorezko Kofradiakideen izendapena Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Odolki dastaketa Zubimuzu plazan.

16:30ean: Haur Jolasak 'Kulki'-ren eskutik. Loinazko San Martin plazan.

18:30ean: 'Benta Zaharreko mutiko alaiak'.

21:00etan: Zine-kluba: 'Ríos y mareas'. Usurbe Antzokian. Antolatzailea: Goieniz Zine-kluba.

Otsailak 7, larunbata:

16:00etan: Xake partida: Alfíl A - Hondarribia- Marluxa; Alfíl B- Goierri. Ezkiagako Ludotekan. Antolatzailea: Alfíl elkarteak.

17:00etan: Haur zinea: 'Ahatetxo itsusia eta ni'. Usurbe Antzokian.

Otsailaren 12tik 22ra:

Erakusketa: Medicumundi. Ihesa&Artista&Hausnarketa. Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Goierri

Korrika 16 antolatzeko deia

AEK-k antolatzen duen Korrika 16 hasiko da matxoaren 26an, Tuteran. Apirilaren 2an igaroko da Goierritik. Ataundik barrena iritsiko da hain zuzen ere Korrika 16. Era honetan, AEK-k, Korrika batzordeak sortu nahi ditu ahalik eta herri gehienetan. Aurkezpen Batzarrak egiten ari dira horretarako. 'Ongi etorri' da aurtengo Korrikaren lema.

Goierriko herri gehienetan batzarrak egin badira ere, datozen egunetan falta direnak egingo dira. Jarraian duzue orain arte zehaztutakoen zerrenda:

Olaberria: Urtarrilak 29, osteguna, 19.30ean Udaletxean.

Zaldibia-Gaintza: Urtarrilak 30, ostirala, 19.00etan, Gaintzako Kultur Etxean.

Zegama: Otsailaren 3an, Kultur etxean, 19:00etan.

Ormaiztegi-Gabiria-Ezkio-Itsaso: Otsailaren 4an, 19:00etan, Ormaiztegiko Udaletxeko Erakusketa Aretoan.

Mutiloa-Zerain: Otsailaren 9an, 19:00etan Mutiloako udaletxean.


Korrikako materiala salgai

Beasaingo kale Nagusiko 12. zenbakian dagoen Herri Dendan, Korrika 16-ren materiala salgai dago. Egutero dago irekita denda, 18:00etatik 20:00etara.

Ataun

Korrikalaren aldeko talo jana

Urtarrilaren 30ean, ilutzenko 7etan, Ataungo Aia auzoa Erroipe estalpean, Ataungo Korrika Batzordeak, Korrikalaren aldeko talo-jana antolatu du. Sarrerak aurrez salgai herriko tabernetan.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

☎ 943 80 60 66

Aulia-enea
LEGORRETA

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

Zegama

VIII. Aizkorriko maratoian izena emateko aukera

Maiatzaren 24an jakatuko da VIII. Zegama-Aizkorri mendi maratoia. Bertan parte hartu nahi dutenek, urtarillaren 30ean dute izena emateko azkeneko eguna. Dagoeneko mila lagunetik gorak eman dute izena. www.zegama-aizkorri.com web gunean eman behar da izena. Zozketa, otsailaren 20an, Zegamako udaletxean, arratsaleko 6etan egingo da. Zozketaren emaitzak hurrengo egunean bertan argitaratuko dira web gune horretan bertan.



Segura

Euskadiko kros motz txapelketak

Otsailaren 1ean, goizeko 10,30etan hasita, Segurako Madurako zelaietan, kros txapelketak jakatuko dira. Zehazki, Euskadiko eta Gipuzkoako kros motz txapelketa eta Euskadiko Beteranoen kros txapelketak.

Goizeko 10,30etan, emakumezko beteranoen lasterketa hasiko da. 11:00etan, gizonezko beteranoen txanda izango da. 11:30ean, emakumeen kros motza eta 12:00etan, gizonezkoena.

Goierri

Ekimen berrien XII. sariketa

Goiekik, Goierriko Garapen agentziak, enpresa ekimen berri sariketa jarri du martxan. Sariketak hiru maila eta hiru sari ditu:

Enpresa ekimen berriko proiektu onena:

2008an urtean zehar, negozio ideia bati buruz bideragarritasun plana landu duten sustatzaileei zuzendua. Saria: 9.000 euro.

Enpresan buruturiko ingurumen proiektu onena:

Goierri kokaturik dauden enpresei zuzendua. Saria: 6.000 euro.

Enpresan buruturiko proiektu berritzaile onena:

Ekintza berritzaileak garatzearen ondorioz, enpresa bertan balio erantsia sortzen duten enpresei. Saria: 6.000 euro.

Sariari buruzko argitasun guztiak, www.goierri.org webgunean daude eskuragarri. Agiriak aurkezteko azken eguna, otsailaren 27a izango da.

Lazkao

Kontzertuak Arerian

Urtarrilak 30, larunbata:

Belceblues blues taldea eta Satis Ass metal taldea. 22:00etan Arerian. Sarrera 6 euro.

Otsailak 13, larunbata:

Keu Agirretxe eta Kermen Lertxundi abeslariak. 22:00etan Arerian.

Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

Joan Iturralde, 5 - Beasain
943 160 120 (arratsaldean)
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA:

Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, moduluak

UNIBERTSITATE MAILA:

Enpresaritza, Injeniaritza, Kimika eta Fisika

INFORMATIKA:

Mekanografia, Word, Acces, Excel

IKASKETA TEKNIKAK

INGELERA:

Maila guztiak, PET, First Certificate, mintza praktika

Eskaintza berria: **FRANTSESA**



RENAULT

LAZKAO GARAJEA

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxe: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA

ZALBIDE

TOLARE
SAGARDOTEGIA



Beasain

La Salle ikastetxearen mendeurreneko ospakizuna

Beasaingo La Salle ikastetxeak 100 urte betetzen dituela eta, otsailaren 6an, hasiko ditu mendeurreneko ekitaldiak. Jarraian dituzue lehenengo ekitaldiak:

Otsailak 3, asteartea:

19:00etan: Mahai ingurua, Ikastetxeko areto nagusian. Gaia: 'Creación y superación de clubes deportivos'. Hizlariak: Miguel Santos (Bruesa GBC), Miguel Madariaga (Euskaltel-Euskadi), Iñaki Bolinaga (J.D. Arrate), Axio Araña (Ordizia Errugby Elkartea) eta Mario Boronat (La Salle - CAF). Moderatzailea: Nikolas Iparragirre.

Otsailak 6, ostirala: Mendeurrenaren hasiera ofiziala:

10:30ean: Esker onezko Eukaristia, Andre Mariaren Zeruratzaren elizan.

11:30ean: Mendeurrenaren hasierako ekitaldi ofiziala, Ikastetxeko jolastokian.

12:30ean: La Sallek Beasainen egin dituen ehun urteei buruzko DVDaren aurkezpena, areto nagusian.

13:00etan: Zizka-mizka (lunch).

Otsailak 7, larunbata: haur jaialdia:

17:00etan: Potxin eta Patxin pailazoak, ikastetxeko pilotalekuan.

18:30ean: Buruhandiak, Loinazko San Martin plazan.

Ataun

Sukaldaritza, dantza eta sendabelar ikastaroak

Urbieta jatetxeko Iñigo Sanchez sukaldariak, 20 orduko sukaldaritza ikastaroa emango du, otsailaren bigarren astean hasita. Ostiraletan 18:00etatik 19:30era izango da ikastaroa. Era guztietako janariak prestatzen ikasteko aukera izango da. Ezer ez dakitekenentzat bezala gehixea go dakienarentzat aproposa. Entsaladak, pastak, eltzekoak, arrainak, haragiak, postreak ... Ikasturte bukaeran parte hartzaileei ikasitako errezeten liburuska bat eman go zaie. Ikastaroaren prezioa: 36 euro.

Euskal dantzen ikastaroa

Otsailaren bigarren astean hasita, ostegunetan berriz, euskal dantzak ikasteko aukera izango da, Maider Arruabarrenaren eta Alazne Elorzaren eskutik. Erromerietan dantzatzaren diren euskal dantzak ikasiko dira: fandangoa, arin-arina eta abar. 15 orduko ikastaroa izango da, ostegunetan, 19:00etatik 20:30era. Ikastaroaren prezioa: 30 euro.

Sendabelarrak

Apiril arratsaldeetarako bestalde, sendabelar ikastaroa prestatu da. Zorion Intsausti ordiziarrak, mendi eta paraje naturalerako sendabelarren aberastasun handia ezagutzea; min eta gaixotasun arruntei dagokien landareekin tratatzen eta aurre hartzen ikastea; eta ukenduak egiten ikastea dira ikastaren helburuak. 8 orduko ikastaroa izango da. Prezioa. 30 euro.

Ikastaroak eman ahal izateko, gutxiengo kopurua egon beharko da.



KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70
BEASAIN



Logela, egongela
eta sukaldeko
altzari nahiz
osagarrietan
aukera paregabea

Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa
☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Harpidetza txartela

Urteko kuotak:

☐ **Goierri** 27 euro ☒ **Egin** bat ☐ **GOERRIKO hitza** 67 euro
aukeratutako kaxan

☐ **Goierri** + **GOERRIKO hitza** 72 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:.....

Herria:.....

Telefono zenbakiak:.....

NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartel hau helbide honetara:
Goierritarra, Urbialde plaza 7 behe, Beasain

www.jakintza.net



Heziketa euskalduna eta eleanitza
Europar saritutako proiektuak
Kalitatezko hezkuntza
Emitza bikainak
Irakasleria iraunkorra eta
konprometitua
Hurtzaindegia
Jangela
Garraioa

INFORMAZIO BILERA

otsailaren 4an (asteazkena)

17:00etan Euskaraz eta 18:30ean Gazteleraz

jakintzaikastola

Altamira auzoa z/g - ORDIZIA

943 16 05 40

ordizia@ikastola.net





Ezkontza Astigarretan

Argazki hau 1921. urtekoa da, Astigarretako Muxika baserriko ezkontzan ateratakoa.

Goiko ilaran: Juan Joxe Alustiza Asurabarrena (Muxika baserrikoa) eta Hermenegilda Aiesta Irizar (Arsuaran baserrikoa).

Beheko ilaran: Maria Dolores Aiesta Irizar (Arsuaran baserrikoa) ea Juan Krisostomo Alustiza Asurabarrena (Muxika baserrikoa).



Egurrezko lehioak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurrira.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ


Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55
Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa 20491 LEABURU

IÑAKI ARIN

aseguruak



943 888 702 Oriako pasealekua, 20 BEASAIN



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)
659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk. **ZALDIBIA**



● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



Haur Hezkuntza

Lehen Hezkuntza

D B H

Batxilergoak

Heziketa zikloak

Urdaneta-Oianguren eskola euskalduna, anitza eta parte hartzea bultzatzen duena da. Gure hezkuntza proiektua pertsonen heziketa osoan oinarritzen da, bakoitzaren izaera eta egoera kontuan hartuz.

urdaneta
oianguren
ordiziako ikastetxe publikoa

URDANETA HI Intsausti Plaza z/g. - Tfnoa.: 943 88 27 80 - Fax: 943 16 18 16
20240 **ORDIZIA** (Gipuzkoa) - 012279aa@hezkuntza.net - www.urdanetaikastetxea.org

OIANGUREN BHI Altamira Auzoa z/g. - Tfnoa.: 943 88 08 62 - Fax: 943 16 41 21
20240 **ORDIZIA** (Gipuzkoa) - 012282aa@hezkuntza.net - www.oianguren.net

INAUTERIAK 2009



MOZORRO DENDA

Elbarrena industrialdea - ZALDIBIA
Tel.: 943 888 232
www.jaiakdenda.com - jaiak@jaiakdenda.net

Ordutegia:

Astelehenetik larunbatera: 10:00etatik 13:00etara
15:00etatik 20:00etara

UMEEN MOZORROAK

Majori,12 - ORDIZIA

